

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Miss Txatarra
Xabier
Mendiguren Elizegi

ELKAR
 76 orrialde
 8,70 euro

**Señorita izan nahi
 ez duen neskatoa**

Xabier Mendiguren Elizegik hamar urte inguruko gaztetxoentzat idatzi duen liburu honetako protagonista aitarekin txatartegian bizi den neska koxkorra da. Pozik pasa ohi ditu egunak, aitari arratsaldero bisita egitera gerturatzan zaizkion lagun *heavy*ekin eta ikastolako ikaskideekin. Baina amonak –*señorita* izan dadin egiten dituen ahaleginekin– eta ikastetxeko beste hainbatek –“marimutil” eta halakoak esaten diotenek– ernegatu egiten dute. Txikia zela galdu zuen ama, eta gutxi daki haren izaeraz eta bizimoduaz, harik eta batzuei eta besteei amaren berri galdetzea

erabakitzen duen arte. Eta erantzun ezberdinak jasoko ditu, baina denetan nabaritzen du bere ama izandakoari zioten maitasuna. ■



**Bidaldi handien
 atlas historikoa**
Koldo Ortega, Alizia Stürtze

GAIAK
 284 orrialde

**Historian zehar ezezagunaren
 bila abiatutakoen abenturak**

Duela 75.000 urte *Homo Sapiens* Asiako itsasertzetik abiatu eta Australiara heltzea lortu zuenetik, XX. mendeko gizakiek espazio-ontziak asmatzerainokoak jaso ditu Gaiak argitaletxeak plazaratu duen *Bidaldi handien atlas historikoa* liburuak. Koldo Ortega eta Alizia Stürtzeren artean osatu dute. Zehaztasun ikaragarriak eskaintzen ez duten adibideak dira han jasotakoak, gizakiak unibertso ezezaguna esploratzeko betidanik izan duen gogoia eta jakin-mina agerian jartzea izan baitute helburu. Azaltzen diren gertaerak? Antzinako Egiptoko esploratzaileak, Alexandro Handia, zetaren bidea, Estrabon, Islamaren esploratzaileak, Cristobal Colon, Magallanes, Elkano eta munduari emandako lehen itzulua, esate baterako. ■

**Iazko Felipe
 Arrese Beitia saria**

Euskaltzaindiak eta BBK Fundazioak urtero antolatu ohi duten Felipe Arrese Beitia olerki lehiaketako irabazle suertatu zen iaz Aintzane Galardi Porturen *Zirrikituak* izeneko poema bilduma. Oiertzuarra da egilea, egun Nafarroan irakasle lanean badihardu ere. Euskal Filologia Lizentziaturara eta Kultur Baliabideen Kudeaketa espezializazioa burutu zituen Deustuko Unibertsitatean. 2004. urtean aurreneko Felipe Arrese Beitia saria jaso zuen, *Itoti urdinaren azpian* izeneko olerki-lanarekin. *Zirrikituak* liburuan olerki luze eta laburrak tartekatuta ditu. *Lagun mina zinen*, dio azken hauetako batean. Eta honela ematen dio jarraipena eta amaiera *haiku* itxurako poema horri: *Baina lagunak ibes egin zuen/ eta mina bakarrik gelditu zen.* ■



Zirrikituak
Aintzane Galardi
Portu

EUSKALTZAINDIA,
 BBK FUNDATZIOA
 102 orrialde
 6 euro


**Arana Martijaren
 erantzun bipilak**

Jakinen 161. zenbakiak ez du gai bakarra jorratu, baina irakurleari interesgarri izango zaizkion zenbait eztabaida dakartza. Batetik, *Prestige* petrolio-ontzia urperatzearen ondorioak aztertzen dituzten hainbat adituren iritzia –Iñaki Barcena, Eneko Borja, Josu Larrinaga, eta Jone Martinez–; eta bestetik, Miel A. Elustondok Jose Antonio Arana Martijari egin dion elkarrizketa. Zuzenbide eta Ekonomia ikasketak burutu zituen Arana Martijak gaztetan; musikari dagokionez, Bogamazua zortzikotean aritutakoa da, Santa Zezilia, Andra Mari, eta Hodeiertz koralen sortzaile izateaz gainera. Kultur munduan asko ahalegindu da, eta politikan ere badu saiorik: ESB alderdiaren sortzaileetarikoa izan zen, baita Bizkaiko Batzar Nagusietako Ahaldun ere. Bere bizitzako pasarte ugari aurkituko ditu *Jakinen* orrialdeetara hurbiltzen denak. ■



Jakinen
Batzuen artean

JAKIN
 136 orrialde
 9,50 euro



Kroko, hor
zaude?

Jo Lodge

IBAIZABAL

14 orrialde

22 euro

Krokorekin ezkutaketan jolasteko aukera ederra

Etxeko txikienei jolasteko aukera berria eskaintzen die Ibaizabal argitaletxeak *Kroko, hor zaude?* izeneko liburuxkan. Haurrak ginetik liluratu izan gaituen etxetxoaren planta du liburua. Krokoren panpina eta guzti dator gainera. Etxearen barruan gordetzen diren gelak erakusten ditu istorioak. Non ezkutatu ote da Kroko? Etxeko atetxoa ireki orduko, egongela baten moduko aretoa agertuko da eta Krokoren ezkutaketa jolasari ekiteko gonbidapena egingo zaio irakurleari. Hurrengoan, Krokoren logela agertuko da. Lotan ote dago?

Ez. Ohe azpian dagoela jakingo dugu azkenean. Gero, bainugela erakutsiko digu, ispilu eta guzti. Kroko ez da inondik agertzen, ordea. Non ote dago? ■

Spirouren sortzailearen komiki berri bateko protagonista

André Franquin (Etterberken, Belgika, 1924) marrazkilaria sortutako pertsonaia da Gaston. 1957an azaldu zen lehen aldiz, *Spirou* aldizkarian. Super-heroien garaian, aldizkariko orrialdeak "animatzea" beharrezkoa zela pentsatu, eta horretarako aproposena "Lanik gabeko heroia" sortzea zela erabaki zuten. Baita asmatu ere. Kazeta baten erredakzioan nahaste-borrasteak besterik

sortzen ez dituen gaztea da Gaston. Hasieran *Spirom* leku gutxi eskaini zioten arren, gero arrakasta handia izan zuen. ■

Gaston

André Franquin

YORAN EMBANNER

10 euro



PATZIKU PERURENA

«Nire lagunik onena gorrotoa hobekien bideratzen duena da»

Gorrotoak oso garrantzitsua dirudi zuretzat...

Gorroto sana, nolabait esateko, bizi atseginarekin seinala da. Inorekin hizketan hasi orduko, nonahituk oharkabeen ihes egiten duen bilisa da gorrotoa. Beti esan izan dut: nire lagunik onena gorrotoa hobekien bideratzen duena dela. Neu ere, ondo bideratu dudanean izan naiz neure buruaren lagunik zintzoena eta sanoena. Horregatik uzten dut jende asko alde batera: hizketan hasi orduko nabaritzen baitzaio ez dakiela ongi gorrotatzen. Eta niretzako, munduko botikarik hoberena da ongi gorrotatzen jakitea. Euskal Herriak, esate baterako, oso kalitate exkaxeko gorrotoa bizi du oraino.

Adiskidantza, berriz, ez ei duzu estimu handian.

Nik ez dut inoiz adiskidetasunik laudatu. Izaera partikular eta onskoak hondatzeko martingala, edo zitalak kontsolatzekoa ote den bai, nahi baino gehiagotan sumatu.

Eszeptiko samarra sumatzen zaitugu. Oker gabiltza?

Zer da izan ere eszeptikoa? Deus ez galtzekorik. Deus ez irabaztekorik. Sentitu bakarrik. Sentitu. Sentitu alfer-alferrik. Mila modutara sentitu. Eta ahaztu, eta berriz sentitu, eta sentitu...

Aztertzen dituzun euskal hitz anitzetatik, Monzonek antzezlan batean erabilitako *amat* harturik, zer diozu?

Besteren artean, haxe: Oi, gure *suteak*, *su etenak*, *su hiltzaileak*! Zelan *amatau*? Noiz ikasiko ote dugu euskaldunok elkarren artean sua pizten eta itzaltzen geure neurritsu polit batean, honenbeste *sute*, *su eten* eta *su hiltze* antzuren gupil zoro honen *itzalpetik* behingoz ateratzeko? Eta geure burua pittin bat *pizten* eta *ernatzen* hasteko?



ALBERTO ELOSTEGI

Patziku Perurenak dakienaz ikasi duena

Inguratzen duenaz etengabe gogoeta egitea gustuko duen idazlea da Patziku Perurena. Eta

bere zenbait iritzi eta ikusmolderekin osatu du *Dakiguna ikasten* liburua. Behin eta berriz gogoan erabili ohi dituen gaiez dihardu obra berri honetan: hainbeste maite duen euskararen gainean —*Eta zeinen guti dakigun gure hizkuntzaren barne historia?*—; klasikoetatik hasita gaur egunekoetaraino arrastoa utzi dioten pentsalari eta poeten inguruan —Epikteto, Baltasar Gracián, Nietzsche, Mirande, Xalbador, Gil Bera, Sarriónandia, baita Goizuetan zein Leitzañ ezagututako herritarrak ere—; naturak eskaintzen dizkion aberastasun ugari buruz —*Lurra: nire maite bakarra, nire maisu bakarra, nire liburua bakarra...* Ongi leitzen ikasiko banu?—; edota Euskal Herriko gorabeheraz. Orixeri jasotako hitz bat erabiliz, *aleunka* gai bildu ditu Alberdania argitale-



Dakiguna
ikasten

Patziku Perurena

ALBERDANIA

222 orrialde

17,50 euro

egileari galdezka

txearen eskutik kaleratutako lanean. Artxibategietako miaztaile nekaezina, haietatik kanpo ere asko irakurria, asko ikusia eta asko ikasia da, dudarik gabe, Patziku Perurena. Honela ohartarazi du irakurlea: *Ikasmin handia izanda ere, aurrez dakiguna besterik ez baitugu ikasten*. Hala bada ere, esango genuke benetan merezi duela *Dakiguna ikasten* liburu ausartaren irakurketak. ■